

**Ebazpena: R 34/2024**

**Espedientea: 64/2021**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

### **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena 2017. ekitaldian lan-etekinengatik ordaindutako zenbatekoetan BSLk egindako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (aurrerantzean, PFEZ) konturako atxikipenak ordainarazteko. Gatazka hori 64/2021 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

### **AURREKARIAK**

**1.-** BSL sozietateak Bizkaian ditu egoitza fiskala eta soziala.

2017ko ekitaldian, BSLk bi jarduera bereizi izan zituen:

- Aldamioak muntatzea, desmuntatzea eta alokatzea. Espainian egin zituen jarduera horiek, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan eta autonomia-erkidego mugakideetan.
- Energia berriztagarrien instalazioak muntatzea, mantentzea eta martxan jartzea eta horien topografia eta jarduna (batez ere instalazio termosolarrak). Marokon eta Hegoafrikan soilik egin zituen jarduerak, Espainiatik lekualdatu ziren langileekin.

**2.-** BSLk hiru hilean behingo autolikidazioak aurkeztu zituen, 2017ko ekitaldian BFAn bakarrik egindako PFEZaren konturako lan-atxikipenengatik.

**3.-** ZAEAk BSL entitateari jakinarazi zion, 2020ko irailaren 28an, 2017ko ekitaldiari zegokion PFEZaren konturako atxikipenak egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketak hasiko zituela, langileei egindako eta BFAn sartutako atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko.

**4.-** ZAEAk, 2021eko otsailaren 3an, jarduketak amaituta, txosten bat egin zuen eskumenik ez duen administrazio erkidean/foralean dirua sartzeari buruz (A09 Erref.zk.: 70020554) BSLk egindako 2017ko ekitaldiko lan-etekinen atxikipenei dagokienez.

Txostenean, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo lan egin zuten langileak identifikatu eta zerrendatu ziren, eta, besteak beste, honako hauek zehaztu ziren: BSLk langile horiei ordaindutako lan-ordainsariak, ordainsarrietan egindako eta BFAn sartutako atxikipenen zenbatekoa, eta lana non egin zen (Marokon, Hegoafrikan edo Burgosen).

**5.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Harremanetarako Eskualde Bulegoak, 2021eko martxoaren 5ean, mezu elektroniko bat bidali zion BFari, BSLk 2017ko ekitaldian egindako atxikipenak ZAEari transferitzeko eskatuz. Atxikipen horiek EAetik kanpo egindako lanei dagozkie, eta BFAn 62.309,82 euro sartu zituen.

**6.-** 2021eko apirilaren 16an, BFAk jakinarazi zuen partzialki baietsi zuela ZAEAk bidalitako eskaera, eta 2021eko apirilaren 14ko akordioa erantsi zuen. Akordio horretan, 13,27 euroko bidalketa bat egitea ebatzi zen (Burgosen egindako lanengatik ordaindutako ordainsarien atxikipenei dagokiena), eta 62.296,55 euroko zenbatekoa ezetsi zen (Marokon eta Hegoafrikan egindako lanengatik ordaindutako ordainsarien atxikipenei dagokiena).

Akordio horretan, BFAk adierazi zuen erreklamazioan aipatzen ziren langileak BSLk Bizkaian zuen lantoki bakarrari adskribatuta zeudela.

**7.-** 2021eko ekainaren 17an, ZAEAk inhibizio-errekerimendua egin zion BFari, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan eta 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordainarazteko eskumena aitor zekion, baita ZAEAk bere txostenean zehaztutako zenbatekoak (62.296,55 €) jasotzeko eskubidea ere. Zenbateko horiek BSLk 2017ko ekitaldian EAEn egin ez ziren lanen etekinei egindako PFEZaren konturako atxikipenak ziren.

**8.-** 2021eko uztailaren 8an, BFAk ZAEari jakinarazi zion uko egin ziola inhibizio-errekerimenduari, eta ez zuela bidalketarik egingo, uste zuelako atxikipenak

Bizkaiko lantoki batera adskribatutako langileei zegozkiela —atzerrian zerbitzu eman arren—.

**9.-** 2021eko uztailaren 30ean, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela-eta, bete egin da BFAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

### **1.- Arbitraje Batzordearen eskumena**

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoarekin bat, Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

**2.- Aplikatu beharreko araudia eta ordainarazteko eskumena.**

Ekonomia Itunaren 7.Bat a) artikulua, 2017ko abenduaren 29ra arte indarrean zegoen idazkeran, hau adierazten zuen: «Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

a) EAEn egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta EAeko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak EAEn egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago».

Hortaz, 7.Bat.a) artikulua bigarren paragrafoan, *iuris tantum* presuntzio hau ezartzen da: zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan eman direla ulertuko da, langileari atxikitako lantokia lurralde horretan badago.

Manu horretan, ez zen ezer adierazten (ez behintzat, berariaz) atzerrian egindako lanei buruz.

Dena dela, Arbitraje Batzorde honek gaiari buruz mintzatzeko aukera eduki du; zehazki, 6/2018 Ebazpenean (13/2015 gatazka). Bada, batzorde honek, Auzitegi Gorenaren 1998ko azaroaren 14ko epaian finkatutako doktrinari jarraikiz

(ECLI:ES:TS:1998:6730), langilea atxikita zegoen *lantokia* hartu zuen interpretazio-irizpide egokitzat, zehazteko zer administraziok duen eskumena nazioarteko uretan nabigatzen duen ontzi bateko tripulatzailleek lortutako etekinen atxikipenak ordainarazteko. Irizpide hori berariaz bermatu zuen Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 4ko epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3144), zeinaren bidez ebazpen haren aurka jarritako auzi-errekurtsoa ebazten baitzen. Hori horrela, ezin hobeto estrapolatu daiteke doktrina hura atzerrian lan egiten duen edozein langileri ordaindutako lan-etekinetara.

Interpretazio horrek aukera ematen zuen Ekonomia Itunak lurralde-itsasoan edo atzerrian lan egiten duten langileen ordainarazpen-eskumenari buruz zuen arau-hutsunea integratzeko, harik eta 2017an Ekonomia Itunean egindako erreformak indarra hartu zuen arte. Erreforma hori 2017ko abenduaren 30ean jarri zen indarrean, eta aipatutako irizpidea positibizatu zuen, oro har, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan sartutako aldaketarekin, zeinaren testua baita gaur egun indarrean dagoena:

«a) EAEn egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta EAEn egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Teleanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokian egin direla».

Horrela, berretsi egin zen Arbitraje Batzordeak 6/2018 Ebazpenean ezarritako irizpidea, langilea adskribatuta dagoen «*lantokira*» jo baitzuen interpretazio-irizpide egoki gisa ordainarazteko eskumena arautzen duen araudia integratzeko.

lido beretik jo dute, besteak beste, honako ebazpen hauek: 2022ko maiatzaren 6ko 21/2022 eta 24/2022 ebazpenak, 2022ko abenduaren 15eko 169/2022 Ebazpena, martxoaren 22ko 29/2023 Ebazpena, apirilaren 20ko 35/2023 Ebazpena, apirilaren 20ko 37/2023 Ebazpena, ekainaren 1eko 66/2023 Ebazpena, ekainaren 23ko 68/2023 Ebazpena, abenduaren 15eko 103/2023 Ebazpena eta abenduaren 15eko 108/2023 Ebazpena.

### 3.- Atzera egitea

ZAEAk, azken alegazioen izapidean, eskaera aurkeztu zuen 2024ko apirilaren 1ean, izapidetzen ari den 64/2021 gatazkari dagokion prozeduran atzera egindakotzat jotzeko, BSLk lan-etekinetan egindako atxikipenak eskatzeko eskumenari dagokionez.

Azaldutako aurrekariak ikusita, eta espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, ZAEAk uste du, Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen maiatzaren 6ko 23/2022 Ebazpenaren, maiatzaren 6ko 24/2022 Ebazpenaren eta abenduaren 15eko 169/2022 Ebazpenaren arabera (baita Auzitegi Gorenak 2019ko urriaren 4ko 1319/2019 epaian xedatutakoaren

arabera ere), atzerrian emandako zerbitzuak langilea adskribatuta dagoen lantokian egin direla ulertu behar dela.

Horrenbestez, ZAEAk eskatu du aipatutako zenbatekoak erreklamatzeko duen eskubidean atzera egitea onar dadila; izan ere, onartu egiten du BSL sozietateak Marokon eta Hegoafrikan zerbitzuak eman zituzten langileei 2017ko ekitaldian egindako lan pertsonalaren etekinen atxikipenak ordainarazteko eskumena BFari dagokiola, langileak adskribatuta zeuden lantokia Bizkaian dagoelako.

Prozedura amaitzeko modu gisa atzera egitea jasota dago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APAPEL) 84. artikuluan, eta aplikatzekoa da, bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikulua egindako igorpenarekin.

Horren harira, APAPELen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat, Arbitraje Batzordeak onartu egin behar du ZAEAk eskatutako atzera egitea, prozeduran ez baitago eta ez baita pertsonatu hirugarren interesdunik, eta gatazkan sortutako auzia interes orokorrekoa ez delako, eta ez delako komeni hura gauzatzea, definitu eta argitzeko.

Ondorioz, ebazpen hau ematen da, APAPELen 21.1 artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.



Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora galtzea eta, horrenbestez, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKI DU**

- 1.-** Onartzea ZAEAk 64/2021 gatazkan atzera egitea.
- 2.-** 64/2021 gatazka artxibatzea, ZAEAk atzera egin eta, ondorioz, prozeduraren xedea galdu delako.
- 3.-** Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta BSLri jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Francisco Javier Muguruza Arrese.